



Arropa erosten

Anak euskal produktuak erosi ditu eta orain dendaz denda ibili nahi du. Bidean Michael ikusi du, Michaelak ere joan nahi du arropa-denda batera.

Después de conocer algunos productos del país, Ana ha visitado más tiendas. Incluso se ha reunido con Michael. El también quiere comprarse algo.


Dendaz denda

Anak gauza asko erosi nahi ditu. Dendaz denda dabil. **Entzun** eta asmatu nora joan den. Hau guztia dendetako elkarriketak lantzeko ondo etorriko zaizu.


Ana está visitando un montón de tiendas. Tu tarea es la de enumerar el orden en el que ha acudido a ellas. Todo esto te será de gran utilidad para mantener conversaciones simples.



Zapata-denda



Bitxi-denda



Lentzeria



Jantzi-denda

Nork esan du?

Entzun elkarrizketa berriro eta esan nork esan duen: Anak ala dendariak.
Escucha la grabación y escribe quién ha dicho estas frases.

ZAPATA-DENDAN		JANTZI-DENDAN	
<input type="text"/>	Bota horiek probatu nahi ditut	<input type="text"/>	Urdina nahiago dut
<input type="text"/>	Zein zenbaki?	<input type="text"/>	Urdina ala beltza?
<input type="text"/>	Sentitzen dut baina 36a bakarrik daukat	<input type="text"/>	Zein neurri behar duzu?
		<input type="text"/>	Badaukazu 40a?
BITXI-DENDAN		LENTZERIAN	
<input type="text"/>	Oso politak dira. Zenbat balio dute?	<input type="text"/>	Zein prezio dauka pijama urdinak?
<input type="text"/>	Oso garestiak dira	<input type="text"/>	Merkea da
<input type="text"/>	500 euro	<input type="text"/>	Zein neurri da?

Zer erosi du?

Erosi du	Ez du erosi	Arrazoa

Michaelekin topatu



entzumena

Entzun elkarrizketa eta erantzun galderei.
Escucha la grabación y responde a las preguntas.

- o Nola dago Ana?
- o Nora joan nahi du Michaelek?
- o Noiz joan nahi du Nafarroara?
- o Nora joan nahi du Anak?
- o Arropa garestia da?
- o Zer erosi nahi du Anak?
- o Zer erosi nahi du Michaelek?
- o Kamisetak asko balio du?



Koloreak

Nola dira kolore hauek euskaraz? Irakurri pistak eta begiratu ARROPAK fitxako irudiei. Laguntza ona dira! Ea asmatzen duzun! Erabili zure aurre-jakintza testuak ulertzeko.

Intenta adivinar cómo se denominan los colores en euskara. Las pistas y los dibujos de la ficha ARROPAK te ayudarán. Utiliza tu background para entender los textos.

1.- 

2.- 

3.- 

4.- 


5.- 

6.- 

7.- 

8.- 

9.- 

10.- 

11.- 



irakurmena

Arropak



- o Emakumeen kolorea da morea. Feministen kolorea. Hemen BEROKIA da morea.
- o Piraten bandera beltza da. Hegazkin guztiek dute kutxa beltza. Batman beltza da. TXAPELA ere bai.
- o Bakearen kolorea. Amerikako Estatu Batuetako presidentea bizi da Etxe Zurian. Ezkontza askotan emaztegiaren kolorea da zuria. GALTZA MOTZAK zuriak dira.
- o Zuria eta beltzaren nahasketa da grisa. Oso kolore tristea da. Hemen PIJAMA da grisa.
- o Pantera famatu bat da arrosa. Rock talde bat ere bai. Talde honek kantu famatu asko ditu, adibidez: "The wall". Italiako Giroan, lehenengoaren kamiseta. Hemen KAMISOIA da arrosa.
- o Esperantzaren kolorea da berdea. Belarra ere berdea da. Irudian GONA eta ALKANDORA dira berdeak.
- o Zerua da urdina. Itsasoko ura ere bai. Hemen BAKEROAK dira urdinak.
- o Gorriaren eta horiaren nahasketa da laranja. Frutak ere kolore hori du eta, Euskal Herrian, gas-botilak ere bai. Hemen ez dago kolore laranja-rik. Beno, ia-ia KAPELA da laranja.
- o Odolaren kolorea da gorria, Liverpoolen elastikoa da gorria. Amapolak ere gorriak dira. Athletic-en kamiseta zuria eta gorria da. Irudian SOINEKOA da gorria.
- o Limoia da horia, Tourreko irabazlearen mailota ere bai. Estropadetan Oriok du kolore hori. Irudian GALTZAK dira horiak.
- o Kolore iluna da marroia. Egurraren kolorea da. Kakaren kolorea da. Hemen TRAJEA da marroia, TXALEKOA ere bai. GERRIKOA ere bai.



Irakurri testuak eta asmatu: Nongoa da bandera?
Lee los textos y adivina de qué país es la bandera.

Euskal Herria
Argentina Alemania Espainia
Txina Kanada
Senegal Brasil

- *Bandera hau berdea da, baina horia badu eta urdin pixka bat ere bai.*
- *Bandera hau gorri-gorria da. Irudi hori bat du.*
- *Bandera honek hiru marra ditu. Bi gorriak dira, bestea zuria.*
- *Berdea, horia eta gorria da bandera hau.*
- *Hiru marra ditu, gorria, horia eta beltza.*
- *Hiru marra ditu. Bi gorriak dira, bestea, erdikoa, horia.*
- *Zuria eta urdina da, urdin argia.*
- *Zuria, gorria eta berdea da. Gurutzea eta X bat ditu.*



binaka

Bandera ezkutua...

Munduan bandera asko daude. Jarri binaka eta deskribatu bost. Ondoren, irakurri ikaskideei. Nongoak diren asmatu behar dute.

El mundo está lleno de banderas. Vuestra siguiente tarea consistirá en describir cinco. Luego, leeréis en voz alta vuestro trabajo y los compañeros de clase tratarán de adivinar de dónde son, a que país pertenecen.




irakurmena

Nolako arropa? Zertarako?

Irakurri esaldiak eta asmatu norena den jantzia.
Lee los textos y adivina de quién se trata.



Iturgina



Medikua



Tenista



Suhiltzailea



Margolaria



Sukaldaria

Nik arropa zuria dut. Nire arroparen gainean jantzen dut bata zuria. Kirofanoan banago, berdea da nire bata. Orain bata irekita dut. Batak poltsikoa du fonendoskopioa gordetzeko. **Nor naiz?**

Nik txano berdea dut, alkandora ere bai. Orain peto zuria dut, baina askotan buzo urdina ibiltzen dut. **Nor naiz?**

Nik arropa berezia behar dut. Buruan kaskoa dut eta gaur uniforme gorria dut, beste batzuetan urdina. Nire lana oso arriskutsua da eta eskularruak behar ditut ez erretzeko. **Nor naiz?**

Nik txano zuri luzea dut, ileak lapikora ez erortzeko. Nire jantzia zuria da, dotorea. Guk dotore jantzi behar dugu, gure bezeroak gustura egoteko. **Nor naiz?**

Nik ere txanoa dut, txano zuria, ez zikintzeko. **Nor naiz?**

Nik gona motzak ditut, eta nire elastikoak ez du maukarik, eroso egoteko. Buruan bisera dut eguzkiak begietan ez jotzeko. **Zer naiz?**

Binaka

Deskribatu beste uniforme batzuk eta adierazi zertarako erabiltzen dituzten.
Describid otros uniformes e indicar para qué se utilizan.


Bideoa

Etxe batean aberia bat dago. Iturginak behar dituzte konpontzeko. Ikusi bideoa eta erantzun galderei.

Verás un video en el que un par de fontaneros van a arreglar una avería. Fíjate atentamente y haz los ejercicios.

Langileak etxean

Zein da erantzun egokia? Zer esan dute?


Arratsalde on, etxeoandrea?

- Etxekoandrerik ez dago.
- Eguraldi ona!
- Etxekoandrea ez dago.

Badago zulorik?

- Ez.
- Bai.

Zerbait behar duzue?

- Ez dugu ezer behar.
- Bai, kubo bat behar dugu.
- Kuborik ez dugu behar.

Baduzue mailurik?

- Bai, sukaldean dugu.
- Etxean ez dugu mailurik
- Zuek ez duzue ezer?

Giltza handia...

- autoan dago.
- tailerrean dago.
- ez dute giltza handirik.

Non dago aberia?

- Etxean ez dago aberiarik.
- Beste etxean.
- Etxean.

Lotu izenak eta irudiak. Ondoren, adierazi ZERTARAKO diren.
Relaciona las imágenes y su nombre. Luego, di para qué sirven.

Giltza handia
Linterna
Mailua
Ontzia

ura hartzeko
torlojua askatzeko
ikusteko
aberia aurkitzeko



Zertarako? ...T(Z)EKO

Helburuzko esaldiak egin nahi baditugu, - T(Z)EKO forma erabiltzen dugu.
Una forma de hacer oraciones finales es añadir -KO al nombre verbal:
Etorri ETORTZEKO (para venir). Joan JOATEKO (para ir).

Galdera ZERTARAKO da.

La pregunta correspondiente es ZERTARAKO (para qué).

Adibideak

Zertarako da ura? Ura edateko da. Zertarako da dirua? Dirua gastatzeko da. Zertarako dira begiak? Begiak ikusteko dira.	¿Para qué es el agua? El agua es para beber. ¿Para qué es el dinero? El dinero es para gastarlo. ¿Para qué son los ojos? Los ojos son para ver.
--	--

-TEKO se utiliza con participios terminados en -N, -SI, -ZI, -TSI, -TZI, -TXI.

-TZEKO		-TEKO	
Atera	ATERATZEKO	Eman	EMATEKO
Bazkaldu	BAZKALTZEKO	Edan	EDATEKO
Bete	BETETZEKO	Jan	JATEKO
Ekarri	EKARTZEKO	Egin	EGITEKO
Eskatu	ESKATZEKO	Entzun	ENTZUTEKO
Galdetu	GALDETZEKO	Erosi	EROSTEKO
Garbitu	GARBITZEKO	Ikasi	IKASTEKO
Hartu	HARTZEKO	Ikusi	IKUSTEKO
Hil	HILTZEKO	Erakutsi	ERAKUSTEKO
Ibili	IBILTZEKO	Irabazi	IRABAZTEKO
Jo	JOTZEKO	Utzi	UZTEKO
Lagundu	LAGUNTZEKO	Itxi	IXTEKO

Erantzun T(Z)EKO erabiliz.
Responde a las preguntas usando T(Z)EKO.

Zertarako dira...?

Belarritakoak
Berokia
Betaurrekoak
Eskularruak
Gorbata
Kirol zapatilak
Lepokoa
Txanoa
Txapela



Ondo ikusi
Dotore egon
Kirola egin
Bilerara joan
Hotzik ez pasatu
Euskal dantzak dantzatu
Lepoa goxo-goxo eduki
Burua berotu
Eskuak berotu

Ordenatu esaldiak
Ordena las frases

nahi. baina ez dira, ditut Betaurrekoak politak
duzu zertarako erosi hori? gona
balio. horrek ez asko gona du
txuri bat dut. nahi Nik txano
soineko nahi hori? Zertarako duzu
hori. gordetzeko erosi gauzak dugu poltsa
nahi joan Nora duzue?
dute joan ez lentzeriara Lagunek nahi.



etxerako lana

Galderei erantzun
Responde a las preguntas

- Nor zara zu? Nongoa zara? Zenbat urte dituzu?
- Zenbat minutu ditu orduak?
- Zenbat hatz (dedo) dituzu esku batean?
- Zenbat ordu ditu egunak?
- Zenbat hilabete ditu urteak?
- Zenbat egun ditu martxoak (marzo)?
- Zenbat segundo ditu minutuak?
- Zenbat dira hogeitahi gehi (más) hemeretzi?
- Zenbat dira hamasei gehi hamazortzi?



Esaldiak zuzendu.
Algunas frases están mal. Corrígelas.

- Gizon horrek oso aberatsa da.
- Pello asko diru du.
- Nekane oso emakume langilea da.
- Auto hau asko balio du.
- Zuk tabakoa nahi zara.
- Zuek Tolosan bizi zarete.
- Ikasleak aldizkariak dituzte.
- Etxe hau oso handia da.
- Etxe honek leiho politak du.
- Hau neska oso hiztuna da.
- Zu diru gutxi duzu.
- Sagarrek asko balio dute.
- Guk ez dugu sagarrak erosiko.



Itzuli esaldiak.
Traduce las frases.

- Los bomberos necesitan agua.
- El aparcamiento está a la derecha.
- ¿Quieres ir al cine? Sí, pero necesito dinero.
- Yo no tengo dinero.
- Necesitamos un parking en el hospital.
- ¿Cuanto valen las naranjas?
- Las naranjas valen dos euros.
- No tenemos naranjas.

Galderei erantzun.
Responde a las preguntas.

- Zertarako da boligrafoa?
- Zertarako da eskola?
- Zertarako dira liburuak?
- Zertarako da labea?
- Zertarako da xaboia?
- Zertarako ikasten duzu?
- Zertarako da telefonoa?
- Zertarako matrikulatu zara euskaltegian?
- Zertarako sartu zara Ciberrean?
- Zertarako egiten duzu dieta?
- Zertarako jarri dituzu partxeak?

Idatzi
Ikasi
Irakurri
Arraina erre
Garbitu
Lanpostua aurkitu
Hitz egin
Euskara ikasi
Txateatu
Argaldu
Ez erre

Komikia

Jarri testua biñetei.
Fíjate en la historia y ordena la conversación.



Bai, baina orain oporrak ditugu. Oso ondo gaude orain oporretan. Ez dugu lan egin behar, ez ditugu etxeko lanak egin behar, ez dugu ikasi behar...

Eneko naiz. Portugaletekoa naiz. San Roke kalean bizi naiz.

Erregeak pasa arte. Nik play-station bat nahi dut.

Esan, mutiko! Nola duzu izena?
Nongoa zara?

Eta noiz arte dituzu oporrak?

Eta Olentzero ondo portatu al da?

Eta eskolara joaten zara?

Olentzero bai, baina ni ez, eta ez dut oparirik izan. Eta nik play-station bat nahi dut!

Zazpi, zazpi urte ditu. Laster zortzi egingo ditut, martxoan.

Zenbat urte dituzu, polit horrek?

Idatzi

Idatzi elkarrizketa bat: Bezeroa eta dendaria.
Escribe una conversación entre un vendedor y un cliente.

**Ikasgai honetan hau ikasi duzu:**

Arropa eta koloreen izena.
El nombre de ropas y colores.

Gauzak zertarako diren adierazten. ZERTARAKO
A decir para qué sirven las cosas. ZERTARAKO.

ZERTARAKO galderari erantzuten: ...-T(Z)EKO.
A responden a la pregunta ZERTARAKO con ...-T(Z)EKO.

Eta, gainera, orain arte ikasitakoaren errepassoa ere egin duzu.
Además, has repasado contenidos de anteriores lecciones y trabajado mucho vocabulario.



Euskal diseinatzaileak eta moda

Euskaldunok baditugu bi diseinatzaile munduan oso ezagunak. **Paco Rabanne** (1934) eta **Cristobal Balenciaga** (1895-1972) dira. Bi diseinatzaile hauek oso ospetsuak dira eta moda munduan oso ezagunak. Pako Rabanne Frantzian bizi da, baina Pasaian jaio zen eta Balenciaga, Getarian. Getaria kostaldeko herri txiki zoragarria da. Getarian Balenciaga fundazioa dago eta bere diseinuak han daude. Balenciaga maisu handia izan da eta Sofia Loren eta Ava Gardner jantzi ditu.



Balenciaga



Rabanne

Diseinatzaile gehiago ere baditugu. **Angela Arregui** (1939-2006) diseinatzaile bilbotarrak berrikuntza handiak ekarri ditu material arloan eta oso diseinatzaile fina eta sentibera da.



Modesto Lonba gasteiztarra da. Bere moda minimalista da. Marrazki eta forma zuzenak atsegin ditu.

Miguel Palacio(1962) bilbotarra da. Parisen bizi da. Kaleko emakumea jantzi nahi du, gazte eta erakargarria.

Miriam Ocariz(1968) bilbotarra da. Bere diseinuak alaiak eta atseginak dira. Kolore biziak eta orijinalak. Serigrafia atsegin du.

Lemoniez (1964) donostiarra da. Moda dotorea eta modernoa atsegin du. Gasa eta zeta dago bere kolekzioan.

Marta Teran bilbotarra da. Denda txikia izan du orain arte, baina orain enpresa egin du eta Bilbon indar handia du.

Jota mas Ge. Ruiz eta Urdanpilleta diseinatzaile bizkaitarrek emakume segurua, praktikoa eta sexia nahi dute.



Modesto
Lomba

Miguel
Palacio

Miriam
Ocariz

Fernando
Lemoniez

Marta
Teran

Juana Ruiz
Garbiñe Urdanpilleta

Gure diseinatzaile gazteak oso modan daude mundu osoan.



Mikel Urmeneta nafarra da. Kukuxumuxu etxearen nagusia. Gaur egun New Yorken bizi da. Kamiseta orijinalak ditu, oso gustuko ditu karikaturak.



Carlos Diez bilbotarra da. Diseinu bereziak egiten ditu, gazte eta helduentzat. Ez ditu fashion biktimak gustuko. Diseinu ausartak ditu.



Xabier Zirikiain donostiarra da. Loreak Mendian diseinuen sortzailea. 1998an lehenengo loretxoa egin zuen eta gaur egun oso ospetsua da. Melbournen ere badu denda bat.



Aitor eta Iñaki Muñoz bikiak dira, bilbotarrak. Ailanto diseinu etxea sortu dute. Diseinu koloretsuak eta alaiak dituzte. Jende freskoarentzat diseinatu nahi dute.



Ion Fiz eibartarra da. Moda gaztea eta dotorea egin du orain arte. Bere diseinuak arkitekturan eta argazkigintzan oinarrituta daude.



NKN Frik. Nekane le Frik nafarra da. Diseinugile ausarta da. Bolanteak eta kolore biziak ditu gustuko eta emakume desberdinak egin nahi ditu.



ariketa

osagarriak

Arropa erosten

Ikusi bideoa eta adierazi zer erosi duen mutilak.
Marca en la tabla qué ha comprado el chico del video.



Praka estuak	<input type="checkbox"/>
Praka zabalak	<input type="checkbox"/>
Txamarra	<input type="checkbox"/>
Alkandora	<input type="checkbox"/>
Jertsea	<input type="checkbox"/>
Txalekoa	<input type="checkbox"/>
Zapatak	<input type="checkbox"/>

Zer nahi duzu?












binaka

Hartu fitxa eta aukeratu hiru jantzi. Pentsatu zertarako nahi dituzun. Ondoren, ikaskidearekin elkartu eta elkarri zer aukeratu duzuen galdetu. Elige tres ropas de la ficha y piensa para qué las quieres. Después, reúnete con tu compañero, -a y comentad qué habéis elegido y para qué.




Zertarako dira hauek?

			
Xurgagailua	Autoa	Hegazkina	Bainera
			
Upela	Bateria	Kanpaia	CD-a
			
Konputagailua	Arkatza	Matea	Ile-lehorgailua

Osatu esaldiak goiko hitzekin eta aditz hauekin.
Haz oraciones utilizando estas palabras y los verbos de la lista. Fijate en el ejemplo.

Adibidea



Antena telefono mobilak funtzionatzeko da.

- Garbitu
- Hautsa kendu
- Herri batetik bestera joan
- Idatzi eta marrazkiak egin
- Ilea lehortu
- Jendea esnatu
- Lagunekin edan
- Lanak egin
- Musika entzun
- Musika jo
- Petrolioa gorde
- Urrutira bidaiatu